

Gaur egungo sistema sozioekonomikoaren alternatiben azterketa: Desazkundera eta Bizitze Ona

(Analysis of alternatives to the current socioeconomic system:
Degrowth and Good Living)

*Maidier Vallo-Lerendegui, Ainara Saralegi Otamendi**

Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Saila,
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

LABURPENA: Lan honetan, gaur egun bizi den arlo antzeko krisi globala aztertzen da, eta horren konponbide gisa aurkitzen diren bi alternatiba deskribatzen dira: Bizitze Ona eta Desazkundera. Izan ere, gaur egungo sistema ekonomikoa gutxi bideraezina da ingurumenean eta gizartean dakartzan kalteak aztertzen baditugu. Sistema ekonomikoa baliabide naturalen eta energiaren ustiapenean eta kontsumoan, eta hondakinen sorkuntzan oinarritzen den hazkunde mugagabe zentzugabea bilatzen du biosfera mugatu baten baitan. Horregatik, bi alternatiba hauek egoeraren iraunkortasun eza azpimarratzen dute, eta egoera honi aurre egiteko irtenbideak proposatzen dituzte. Kontuan izan behar da alternatiba hauek testuinguru ezberdinetan jaiotako mugimenduak direla: Desazkundera Europan eta Bizitze Ona Latinoamerikan. Honela, lan honetan, bi alternatiben jatorria eta garapen historikoa, oinarrien deskribapena, proposatutako estrategiak eta jasotako kritikak edo eragindako eztabaidak ikertu dira, eta bien arteko konparazio labur bat eginez amaitzen da. Biak, «txanpon beraren bi aldeak» direla ondorioztatuta da; izan ere, bideraezina den egoera berari aurre egiteko proposamenak bilatzen dituzten mugimenduak dira. Aldi berean, batez ere, testuinguruak eragindako ezberdintasunak nabaritu daitezke, horrek bakoitzaren kosmopolisioa markatzen baitu, eta ondorioz, estrategiak planteatzeko orduan azaleratzen dira. Haien arteko eztabaidak eta ideien elkartrukea onuragarriak izan daitezkeela ere ondorioztatuta da, alternatiben dibertsitateak erresilientzia handiagoa ekar dezakeelako krisi ezberdinen aurrean eta bata bestea eusten duelako.

HITZ GAKOAK: Krisi globala, alternatibak, Desazkundera, Bizitze Ona.

ABSTRACT: This paper analyzes the current multidimensional global crisis and discusses two alternatives that are presented as solutions to it: Good Living and Degrowth. Given that, the current economic system is absolutely unviable due to its environmental and social impacts. The economic system seeks an indefinite and meaningless growth based on the exploitation and consumption of natural resources and energy and on the generation of waste within a limited biosphere. Therefore, both alternatives emphasize the unsustainability of the situation and propose a solution to the movements born in two different contexts: Degrowth in Europe and Buen Vivir in Latin America. The origin and historical development of these two movements, the description of their foundations, the strategies proposed and the criticisms received or debates raised have been investigated, concluding with a brief comparison between the two. It has been concluded that both are «two sides of the same coin», since they are movements that seek proposals to face the same unviable situation. At the same time, it is possible to appreciate, above all, contextual differences, which mark the worldview of each one and which, therefore, emerge at the time of proposing strategies. It has also been concluded that the discussions among them and the exchange of ideas can be beneficial, since the diversity of alternatives can lead to greater resilience in the face of different crises and one sustains the other.

KEYWORDS: Global crisis, alternatives, Degrowth, Good Living.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Ainara Saralegi Otamendi. Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Saila, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Europa Plaza, 1 (20018 Donostia). – ainara.saralegi@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0002-7583-9981

Nola aipatu / How to cite: Vallo-Lerendegui, Maidier; Saralegi Otamendi, Ainara (2024). «Egungo sistema sozioekonomikoaren alternatiben azterketa: Desazkundera eta Bizitze Ona». *Ekaia*, 45, 2024, 245-258. (https://doi.org/10.1387/ekaia.24877).

Jasotze-data: 2023, ekainak 02; Onartze-data: 2023, azaroak 09.

ISSN 0214-9001 - eISSN 2444-3255 / © 2024 UPV/EHU



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. SARRERA

«Industrializazioak, ingurumenaren kutsadurak, elikagaien produktzioak, baliabideen agortzeak eta populazioak gaur egungo joera esponenzialak mantentzen badituzte, ehun urte barru gure planetak hazkundearen mugak gaindituko ditu, eta espezie askoren biziraupena arriskuan jarri, gizakiarena barne.» [1]. Berrogeita hamar urte dira Meadowsen txostenak honetaz ohartarazi zuela. Argi eta garbi azaldu zuen fisikoki mugatutako Lur planetan guztiz jasanezina zela gertatzen ari zen mugarik gabeko hazkundera; biztanleria eta kontsumoa etengabe haztea ez zela batere bideragarria, ezinezkoa zela etengabeko baliabide naturalen ustiapena, urak, lurra eta airea kutsatzea, eta ekosistemak hondatzea [2].

Hala ere, orain arteko abisuek ez dute ezertarako balio izan, ondoren aztertuko denez, egoerak ez baitu hobera egin. Gaur egun, ukaezina da gizarteak bizi duen krisi globala, hau da, egungo krisia ez da arlo bakarrekoa, alderdi anitzeko krisia baizik. Izan ere, arlo ekonomikoa, soziala eta ekologikoa estuki lotuta daude eta elkarri eragiten diote [3].

Krisia geldiezina da hazkunde ekonomiko iraunkorra bilatzen duen sistema baten barnean, ekonomian, naturaren kontsumoan eta ekoizpen-prozesuetan oinarritzen baldin bada behintzat. Izan ere, sistema ekonomikoa biosferaren baitan dago [2], eta ezin du ukatu honen baldintza ekologiko eta termodinamikoek mugatzen dutela [4].

«Arazo honen aurrean, ordea, bi bide daude, gero eta gutxiago izango diren baliabideen aldeko borroka basatia, edo zuzentasunean oinarritutako berregokitze tinkoa lehenbailehen egitea» [2].

Hori dela eta, arazo honen garrantziaz jabeturik, lan honen ondorengo ataletan krisi-egoera honen deskribapena gauzatuko da, eta horren aurrean planteatzen diren bi alternatiba aztertuko dira: Bizitze Ona eta Desazkundera, eta bien arteko alderaketa egingo da.

2. JUSTIFIKAZIOA ETA TESTUINGURUAREN ANALISIA

2.1. Justifikazioa eta testuinguruaren analisisa

Esan bezala, gaur egungo krisia multidimentsionala da; atal honetan, ingurumenaren krisia eta krisi sozioekonomikoa aztertuko dira, gaur egungo egoera ezagutzeko eta bi alternatiben proposamenak nondik datoen ulertu ahal izateko.

2.1.1. *Ingurumenaren krisia*

Sarreran aipatutako Meadowsen txostenak planetako biogaitasun-mugen gainezkatzearen kontzeptua erabili zuen krisi ekologikoaz ohartaraz-

teko. Gaur egun, ondo ezagutzen dira zein diren Lurraren mugak, eta orain arte zientifikoek garatutako hainbat adierazleren bitartez azter daitezke. Adierazle horiek oraingo ekoizpen eta kontsumo-ereduek naturan dituzten eraginak kalkulatzeko balio dute. Haien artean, aztarna ekologikoa, biogaitasuna eta gehiegikeria ekologikoa dira erabilienak. Haietan oinarritutako eta 2020. urtean egindako Planeta Biziaren txostenaren arabera, gaur egungo bizimodua mantentzeko 1,56 planeta beharko lirarteke [5]. Hori, ordea, ez da beti horrela izan, azken hamarkada gutxitan izandako hazkunde demografiko esponenzialarekin eta baliabide naturalekin eta energiaren kontsumo intentsiboarekin lotura zuzena baitu [6].

Ondorioz, gero eta ingurumen inpaktu handiagoa eta nabarmenagoak agertzen ari dira. Esate baterako, baliabideen erauzketak eta prozesatzeak berotegi-efektuko gasen isurketaren % 50 inguru dira, eta planetako biodibertsitate-galeraren % 90 baino gehiago eragiten dute [7]. Gainera, gaur egun denon ahotan dagoen aldaketa klimatikoaz gain, gero eta fenomeno larriagoak dira biodibertsitatearen galera, krisi energetikoa, ur gezaren eskasia, ozeanoen azidifikazioa, atmosferaren kutsadura eta abar. [5].

Hori dela eta, argi dago azken urteetan izandako ekoizpenean eta kontsumoan oinarritutako hazkunde ekonomikoak ingurumen-kalteak handiagotzea eragin duela, eta ezinezkoa dela ekonomiaren hazkunde mugagabe iraunkorra baliabide eta hustubide mugatuz osaturiko biosfera batean. Beraz, beharrezkotzat jotzen da baliabide naturalen kontsumoa eta hondakinen sorrera murriztea biosferaren mugetara egokitzearaino [2].

2.1.2. Sistema sozioekonomikoaren krisia

Gaur egun, kapitalismoa deituriko sistema sozioekonomikoaren ereduaren erdigunean hazkundearen fundamentalismoa dago [2]. Izan ere, Bermejok dioen moduan, «Egungo sistemak hazkunde ekonomikoa ongizatearen igoerarekin eta garapenarekin parekatzen du. Horrela, hazkunde ekonomikoaren maila altua arrakastaren eta aurrerabidearen froga bihurtzen da, gizarte-ongizatearen hobekuntza bermatuko bailuke.» [8]. Baina gaur egun garapena eta ongizatea sustatzeko ardatz nagusi gisa hazkunde ekonomikoa lortzea zentzurik ez duen politika da, jarraian aipatuko diren hainbat arrazoiengatik [3].

Hazkunde etengabearen oinarritutako sistema ekonomikoak ez du lortu oraindik herritar gehienek bizitza-premiak asetzea, soilik populazioaren ehuneko gutxi batzuenak baizik [3]. Are gehiago, desberdintasunak handitu egin ditu, bai herrialde aberatsen eta pobretuenen artean, bai lurralde berreko biztanleriaren artean, bai eta generoen artean ere [9].

Gainera, lurralde garatuaren hazkundera lurralde azpigaratuaren kontura bete da [2]. Izan ere, Bermejok aipatzen dituen datuak honako hauek

dira: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen herrialdeek (ELGA) munduko populazioaren % 15 biltzen dute, eta munduko petrolioaren % 56, gasaren % 60 eta mineralen % 50a kontsumitzen dute. Beraz, eskualde guztiak ez dira era berean baliabide naturalen erabileraren hazkundearen erantzule, eta krisi ekologikoa ez da berdina mundu osoan; ondorioz, krisi ekosozial bati buruz hitz egitea aproposagoa izango litza-teke [10].

Horrela, ingurumenean kalteak eta ezberdintasun sozialak handitzen dituen «garapena» gertatzen ari dela ikusita, giza garapena eta hazkunde ekonomikoaren artean lotura zuzena eta positiboa dagoela alde batera utziz, egoera aldatzea proposatzen duten alternatibetako bi, Desazkundera eta Bizitze Ona, aztertuko dira jarraian.

3. ALTERNATIBAK: DESAZKUNDEA ETA BIZITZE ONA

3.1. Desazkundera

3.1.1. Kontzeptuaren sorrera eta garapen historikoa

Desazkundera frantsesetik datorren «décroissance» hitzaren itzulpena da, eta berez, gainbehera esan nahi du. Terminoa André Gorz intelektual frantsesak erabili zuen lehen aldiz 1972an, Meadowsen txostena argitaratu eta hazkundearen mugei buruz eztabaidatzen hasi zenean [11, 12]. Hiru hamarkadaz zapuztuta egon ondoren, Desazkundearen diskurtsoa asko berpiztu da azken hamarkadan; izan ere, XX. mendean lelo aktibista moduan sortzetik XXI. mendean mugimendu sozial bat izatera pasatu baita, non korronte, ideia kritiko eta akzio politiko ugari elkartzen diren [13].

3.1.2. Deskribapena eta oinarriak

Desazkundera ez da, askok pentsa dezaketenez modura, hazkunde negatiboa [14], eta hori argitzeko, jarraian hainbat definizio ezberdin aurkeztuko dira. Desazkunderari buruz hitz egiten duten hainbat pentsalari daude eta hura definitzeko orduan interpretazio ezberdinak aurkitu daitezke. Lan honetan, Koldo Uncetak (2014) deskribaturiko bi hurbilketa ezberdini jarraituz barneratu dira definizio eta pentsalari ezberdinak.

Desazkunde lausoa

Kontzeptu hau defendatzen dutenek Desazkundearen definizioaren zabalatasunaren eta aniztasunaren alde daude, eta elementu aglutinatzaile edo mobilizatzaile gisa aldarrikatzen dute [9]. Ideia horrekin bat etorriko lirajteke, adibidez, Serge Latouchek «estandarte» edota Kallisek «Ekonomia nagusiaren alternatiben aterki»tzat definitzen dutenean [14]. Haien ustez,

kontzeptu hori herritarren politika eta ekimen desberdinak lotzen dituen alderdi anitzeko esparrua da [9, 12].

Beraz, Desazkundera horrela ulertuta, esanahi eta korronte filosofiko ugari hartzen ditu kontuan. Flippok 5 korronteen identifikazioa egin zuen lehenengo aldiz; korronte horiek metodologiak eta balioak biltzen dituzte, eta Desazkundera interpretatzeko balio dute [12]: ekologia, garapenari egingdako kritikak eta utilitarismoaren kontrako goraipamenak, bizitzaren eta ongizatearen esanahia, demokrazia, justizia (geroago Martinez-Alierrek gehitutako kontzeptua) eta bioekonomia.

Hala ere, badaude Desazkunderaren definizioan zehaztasun handiagoa behar dela defendatzen dutenak ere, eztabaidaren nondik norakoak mugatu ahal izateko eta ikuspuntu desberdinen arteko adostasunak eta desadostasunak identifikatu ahal izateko.

Desazkundera iraunkorra

Kontzeptu honetan Uncetak ildo zehatzago batean barneratuko liratekeen definizioak biltzen ditu, «hazkunderaren hainbat alderdi baztertzeko eta iraunkortasunaren ikuspegitik eskala-aldaketa aldarrikatzea defendatzen duen Desazkundera iraunkorra» [9].

Ildo honetan, adibidez, Martinez-Alier, Kerschner eta Bermejo sartuko lirateke. Haien ustez, Desazkundera iraunkorraren helburua eskala txikiagoko ekonomia baterako trantsizioa bilatzea da, batez ere ekoizpen eta kontsumo gutxiagoren bitartez [15, 16].

Hortaz, Desazkunderaren barnean ere, definizio eta ikuspuntu desberdinak aurkezten dira, Demaria, Schneider, Sekulova eta Martinez-Alierren ustez onuragarria izan daitekeena. Izan ere, haien ustez, mugimenduaren barruko aniztasunak, eztabaidak eta iritzi-trukeak ekartzen ditu, bai maila teorikoan, eta baita praktikotan ere, proposamenaren etengabeko hobekuntza ekarriz [12].

Hala ere, nahiz eta Desazkundera interpretazio ezberdin ugari dituen, honi buruzko lan gehienetan helburu nagusia beti hazkunderaren aldeko helburu zentzugabea azpimarratzea da, bizi-kalitate hobea lortzeko, kontsumo-maila txikiagoa izatearekin batera. Hitz gutxitan, «gutxiagorekin hobeto bizitzea» bilatzen duen proposamena da [9, 12].

3.1.3. *Estrategiak*

Serge Latouchek 2006. urtean «R» nagusiak deituriko estrategien deskribapenak garatu zituen Desazkundera nola gauzatu daitekeen jakiteko, eta Desazkunderaren gizartea lortu ahal izateko bete beharreko helburuak proposatu zituen; 1. taulan deskribatzen direnak.

1. taula. Serge Latouchen «R» nagusien deskribapena [14].

Izena	Deskribapena
Birrebaluatzea, Birkontzeptualizatzea eta Berregituratzea (<i>Reevaluar, Reconceptualizar y Reestructurar</i>)	Hiru kontzeptu hauek gainerako helburuak lortu ahal izateko oinarri izango lirateke, eta beharrezkoak dira ekoizpenean eta kontsumoan oinarritutako gizarteari amaiera emateko. Serge Latouchek gaur egun nagusi diren balioak bereziki sistema ekonomikoak ezarritakoak direla dio, eta, ondorioz, zalantzan jarri beharko liratekeela. Gaur egun, nagusi direnen aurretik jarri eta ordezkatu beharko liratekeen balioak honako hauek lirateke: altruismoa (karitatea, eskuzabaltasuna) egoismoaren aurrian, lankidetzaz lehiaren aurrian, aisia/lana, tokikoa/globala, harremanetakoa/materiala eta abar. Beraz, haren ustez, gaur egungo hazkundean eta metaketan oinarritutako gizarteari amaiera emateko, barneratutako metaketari lotutako garapenaren ideia zalantzan jarri beharko litzateke, eta ez soilik ustiapena eta metaketa moteltzea.
Birbanatu (<i>Redistribuir</i>)	Era berean, gizarte-harremanak berregituratzeko birbanaketa bat egin beharko litzatekeela uste du. Birbanaketa hainbat arlotan proposatzen du Latouchek, bai iparraldearen eta hegoaldearen artean eta baita gizarte bakoitzaren barruan ere. Sistemaren elementu guztietan egin beharko litzatekeela dio, lurrian, naturaren gaineko estrakzio-eskubideetan, enpleguan, diru sarreretan, erretiroetan eta abarretan.
Birlokalizatu (<i>Relocalizar</i>)	Honek tokian-tokian jardutea esan nahi du. Garapenari erantsita datoren globalizazioa salatzen du, eta lokala defendatzearen ideia azpimarratzen du. Horretarako, honako neurri hauek proposatzen dira: — Tokiko premietarako tokiko eskalan ekoiztea. — Garraioaren kanpo-kostuak barneratzea. — Autoprodukzio energetikoa. — Tokiko txanponak.
Murritzitu (<i>Reducir</i>)	Beharren aldaketa egitera bultzatzen du, aztarna ekologiko egokiaren eskakizunari erantzun ahal izateko, murrizketa drastiko bat ezarri beharko litzatekeela babestuz. Baina Paul Ariesez dioena kontuan hartu behar dela dio, «Desazkundera ez da gaur egiten duguna baino eskala txikiago batean egitea. Bilatzen den desazkundera, ongizatearen eta bizitzaren pozaren hazkundera ere bada; horregatik, produktu toxikoen ekoizpena eta kontsumoa murriztea ezartzen da.»
Berrerabili (<i>Reutilizar</i>)	Berrerabiltzearekin, botatzeko objektuak, xahutze-iturria eta hondakinen inflazio-iturria sistematikoki fabrikatzeari uko egin behar zaiola esan nahi du.
Birziklatu (<i>Reciclar</i>)	Birziklapena berrerabilpenaren ondoren etorriko litzateke. Higaduragatik objektu bat erabiltzea ezinezkoa bihurtzen denean kutsatzaile bihurtu beharrean haren osagaiak berreskuratzeari egiten dio erreferentzia. Gainera, horrela, ekoizpen ziklo berri baterako eskuragarri geratuko litzateke lehengaien iturri bezala.

3.2. Bizitze Ona

3.2.1. Kontzeptuaren sorrera eta garapen historikoa

Bizitze Ona Amerikako, batez ere Andeetako eta Amazoniako, herri indigena batzuen kosmologia da [17]. Terminoa Boliviako Aymara jatorriko «*Suma Qamaña*» eta Quichua jatorriko «*Sumak Kawsay*» hitzetatik dator, eta Bolivian «Bizitze Ona» izenez itzultzen da; Ekuadorren, aldiz, «*Ongi Bizitzea*» erabiltzen da.

Nahiz eta Andeetako herri indigenak ikuspegiaren jatorria badiren, beste herri indigenek adierazpen ezberdinen bidez ideia edota uste mota berdinak adierazten dituztela ikusi da [9, 18, 19]. Hauek jatorrizko herrietatik Bizitze Onaren kontzeptua ulertu eta herri bakoitzaren esperientziarekin osatzen dute. Hori dela eta, «Bizitze Onak» (pluralean) hitz egitea aproposagoa dela dio Gudynasek [18].

Bestalde, Ondo Bizitzearen ideiak izugarritzko ospea lortu du Boliviako eta Ekuadorreko konstituzio-testuetan barneratu zenetik [20].

3.2.2. Deskribapena eta oinarriak

Esan bezala, kontzeptua kultura-, historia- eta ingurumen-testuinguru ezberdinetan garatzen da; beraz, kontzeptuaren azpian alderdi parekatuak daude, baina baita desadostasunak ere.

Hura deskribatzeko eta kontzeptualizatzeko bi joera nagusi daudela diote batzuek: alde batetik, lehendik zeuden bizimoduak eta gizarte-antolaketa aldarrikatuzetik planteatutako interpretazioa egongo litzateke, zeinak urteetan iraun duten herri indigenen kulturak dituen kodeak eta printzipioak berreskuratzeko beharra defendatzen duen. Horrekin bat egingo luke, adibidez, Choquehuancak [18].

Bestalde, eraikitzen ari den kontzeptutzat hartzen duen ikuspuntua egongo litzateke, zeina Andeetako herrien filosofiako hainbat elementutatik elikatzen den, baina, aldi berean, beste iturri berrietatik elikatzen den, eta beraz, moldatuz eta eraldatuz joaten dena [3]. Honen adibide dira Cruz Rodriguez, Acosta edota Guadynas [21-23].

Hala ere, nahiz eta hurbilketa ezberdinak egon, biek gauza bera kritikatzeko dute: gaur egungo garapenaren ideia eta ongizate materialista gaitzes-ten dute. Bizi-kalitatea hazkunde ekonomikotik eta ingurunearen suntsipe-tenetik banatzea bilatzen du Bizitze Onak [20].

Era berean, herri indigena bakoitzak bere erara definitzen duten arren, Fernando Huanacunik (2010) honela laburbiltzen ditu guztiek dituzten alderdi komunak: «*Ongi bizitzea, bete-betean bizitzea da. Harmonian eta orekan bizitzen jakitea; Ama Lurraren, kosmosaren, bizitzaren eta histo-*

riaren zikloekin harmonian, eta bizitza mota ororekin orekan etengabeko errespetuan.» [19].

Aipaturiko harmoniaren gaiak garrantzi berezia du Bizitza Onari buruzko printzipio gisa, bai alderdi indibidualan, bai dimentsio sozialean, bai gizakiek naturarekin duten harremanari dagokionez [24].

Lehen dimentsioa indibiduala da, pertsonala. Ikuspuntuaren arabera, era espiritualago batean uler daiteke [9], barne-harmoniarekin lotua, edota, hazkunde pertsonala eta norberaren errealizazioarekin lotu daiteke [25]. Hau ongizateari buruzko eztabaidak barneratuko lituzkeen esparrua da, aurretik esan bezala kritikatzeko duen ongizate materialetik at. Norberaren zorientasunarekin eta bizitzarekiko gogobetetzearekin osatutako ongizate subjektiboa defendatzen da. Leonek giza eskubideekin lotzen du: bereziki osasun fisiko eta mental onarekin eta hezkuntzarekin [25].

Bigarrenik, dimentsio soziala aurkezten da, hau indibidualismoaren aurrean paradigma komunitarioa defendatzean datza. Espazio kolektiboetan elkarrekikotasuna sendotzea eta aniztasuna errespetatzea aldarrikatzen da. Aldi berean, beraz, kapital soziala, partaidetza, kulturartekotasuna eta nazio-aniztasuna defendatzen dira. Berdintasuna sustatzea eta desberdintasunak murriztea eskatzen du [25].

Harmoniaren hirugarren dimentsioa naturarekin lotuta dago. Honen arabera, ez dago bikoiztasunik edo bereizketarik gizartearen eta naturaren artean, batak bestea baitauka eta osagarriak eta banaezinak direla ulertzen baita [3]. Batez ere, oro har dagoen naturarekiko ikuspuntu utilitaristaren kontra jotzen du, eta naturaren berezko baloreak defendatzen dira, beste edozein bizidun bezala bere eskubide propioen jabe izan behar dela aldarrikatuz [23].

Bestalde, Ondo Bizitzaren printzipioak aztertzerakoan ikusten den bezala, haren funtsezko ezaugarri bat ikuspegi biozentrikoa da [17]. Horrek esan nahi du bere proposamenak bizitzaren zentralitatea bilatzen duela paradigma antropozentrikoa gainditu ahal izateko [18, 26], gizakia- ren eta naturaren arteko harremanen ikuspegiaren aldaketa bultzatuz. Izan ere, ikuspegi antropozentrikoak, natura, erabiltzeko baliabide gisa soilik hartzen du; biozentrismoak, berriz, gizakia naturaren parte definitzen du [26].

3.2.3. *Estrategiak*

Bizitze Ona kultura- eta ingurumen-testuinguru ezberdinetara moldatzen da, eta, beraz, ez dago hura aplikatzeko estrategia zehatzik [18]. Baina badaude proposamenak eraikitzeko funtsezkoak diren alderdiak [3, 18, 27], lan ezberdinetan era batean edo bestean aipatzen direnak. Lan honetan, autore ezberdinek deskribaturiko proposamen ezberdinetan amankomunean

aurkitutako alderdiak ikusitako hiru dimentsioekin lotu dira; ingurumen-mailako estrategiak, gizarte mailako estrategiak eta indibiduo-mailako estrategiak desberdinu dira.

Ingurumen-mailako estrategiak

Ingurumenaren iraunkortasuna lortzeko, hainbat helburu espezifiko proposatzen dira; haien artean, hauek dira eztabaidatuena: naturaren esku-bideak eta desmaterializazioa.

Naturaren eskubideak. Ekuadorreko Konstituzioak 2008an baliatu zituen lehen aldiz naturaren eskubideak. Hori aurrerapena izan zen ikuspegi biozentrikoan; izan ere, naturari eskubideak ematean, bere bezko balio intrintsekoak aitortzen dira eta objektu izatetik subjektu izatera igaro zen [28, 29]. Horrek hainbat neurri bultzatu zituen, ekosistemak babesteko ez ezik, orain arte eragindako kaltea lehengoratzeko ere [28].

Desmaterializazioa. Ekonomiaren eta naturaren arteko harremana iraunkorra izan dadin, helburu ekonomikoak sistema naturalen mende egon behar dute [21]. Hori dela eta, produkzio-prozesuak baliabide gutxiago erabili beharko lituzke [9].

Horrek, lehendabizi, gaur egungo kontsumo-patroiak aldatzea behartuko luke, baliabide naturalen erauzketa mugatzea eta produktuen iraunkortasun handiagoa bilatzea, beste helburu askoren artean [27].

Gizarte-mailako estrategiak

Hasteko, gizarte-mailan ere ikuspuntu edo paradigma aldaketa planteatzen du Ongi Bizitzeak, nolabait ekonomia-politika indibidualistei uko egin eta ikuspegi kolektibo, komunitario eta tradizionala bultzatzen du [30]. Horrek honako proposamen hauek dakartzala esan daiteke: Ekonomia solidarioa eta Berrantolaketa soziala [21, 24].

Ekonomia solidarioa eta Berrantolaketa soziala. Ekonomia honek solidaritatearen, erantzukizunaren, integritasunaren eta jasagarritasunaren printzipioetan oinarrituta egon beharko luke, antzinako printzipioekin batera; elkarrekikotasuna, osagarritasuna, harremanak eta erantzukizuna [17, 21]. Hori lortzeko, honako politika hauek proposatzen dira: erregulazioa, birbanaketa, birdimentsionamendua eta desmerkantilizazioa [24].

Erregulazioa. Ikuspuntu biozentrikoa dela eta, ekonomia bizitzaren zerbitzura egon beharko lukeela defendatzen da [29, 31]. Beraz, kapitala eskubideen bermea lortzearen eta herritarren beharrak asetzaren mende egon beharko litzateke. Horretarako, elikadura-subiranotasuna funtsezkoa

izango da, lana eskubidea izango da eta Estatuak eskubide hori bermatzen dela ziurtatuko du. Azkenik, arlo ekonomikoan erabakiek parte-hartzaileagoak izan beharko lukete [3, 29].

Birbanaketa. Honek aberastasuna eta boterea birbanatzeari egiten dio erreferentzia, bai eta aniztasunean ekitateetan oinarritutako gizarteak erakitzeari ere [29]. Hau da, ekoizpenaren antolaketa eta kontsumoaren ezauzgarriak aldatzea batez ere, Iparralde globalean, baina baita Hegoaldeko herrialdeetako klase ertain eta altuen artean ere, bizimodu duina izateko eskubidea ahaztu gabe. Gainera, gizarte-desberdintasun bertikalez gain, genero- eta arraza-desberdintasunak ere murriztu beharko lirarteke. Aldi berean, lan-denboraren murrizketa proposatzen da [3, 29].

Deszentralizazioa. Hau merkatuetan proposatzen da, eta globalizazioaren aurrean tokiko ekoizpen-jardueren lehentasuna bultzatuko luke [24, 29]. Batez ere, tokiko baliabideetan oinarrituta dagoen eta kanpomerkataritzaren mendekotasun txikiagoa duen produkzio-eredua bilatzen da, autogestioa eta kogestioa aldarrikatuz [21].

Desmerkantilizazioa. Gaur egun gero eta giza jarduera gehiago daude salerosketaren bidez merkatuan [24]; beraz, oinarritzko premiak merkatuaren bidez ez diren bestelako bitartekoen bidez lortzea bilatuko litzateke [17, 29]. Horretarako, ekoizpen eta zerbitzu publikoak ematea izango litzateke funtsezko ekintza [24].

Indibiduo-mailako estrategiak

Ongizate berri bat. Alderdi honen helburu nagusia ondasun materialen metaketan oinarritutako aberastasunaren nozioaren ongizatearen ideala gainditzea litzateke [32], horrek ez baitu nahitaez bermatzen gizabanakoen ongizatea handitzea [21]. Bizitza simple baten aldeko apustua egiten da, funtsezko premiak asetzeari oinarritutakoa [27].

Horrekin bat, hezkuntza- metodo alternatiboak errespetatzea eta sustatzea ere defendatzen da, bai ikuspegi kulturaletik, bai pedagogikotik, bai eta osasun integrala ere, metodo zientifikoak eta tradizionalak barneratuz. Izan ere, osasuna eta hezkuntza funtsezko alderdiak dira ongizatean [27].

Identitateak eta Nazio-aniztasuna. Homogeneizazioaren eta diskriminazioaren aurrean aniztasuna eta errespetua defendatzen dira. Patriarkatua, heteronormaltasuna eta kolonialitatea dira diskriminazio horien oinarriak, eta, beraz, genero-identitatea, identitate sexuala, etnikoa eta nazionalitate desberdinak aitortu eta konstituzionalki errespetatzeko beharra adierazten da. Izan ere, horrela bakarrik hobetu daitezke pertsonen gogobetetze-mailak [33].

4. DESAZKUNDEAREN ETA BIZITZE ONAREN ARTEKO KONPARAKETA

Desazkundera eta Bizitze Ona aztertu ondoren, haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak 2. taulan aurkezten dira.

2. taula. Desazkunderaren eta Bizitze Onaren arteko konparaketa, alderdi ezberdinak aztertuz.

Alderdiak	Desazkundera	Bizitze Ona
Jatorria	Europako mugimendua, Frantzia jaioa	Latinoamerikako mugimendua, herri indigenetatik eratorria
Kosmobisioa	Ontologia dualista	Ontologia erlazionala
Naturarekiko ikuspegia	Objektua, baliabideen hornitzaila, jarrera teknikoa	Subjektua, gizakien hierarkia berbera, eskubide eta berezko balioak, <i>Patxamama</i>
Ongizatearen esanahia	Planteamendu berria proposatzen du, gaur egungoa aldatuz. Hazkunde ekonomikoa eta ongizatea bereizteko aldarrikapena egiten du; bere lema: «Gutxiagorekin hobe bizi»	Planteamendu berria proposatzen du, gaur egungoa aldatuz. Hiru harmoniak betetzeko beharra aipatzen du, indibiduala, gizartearekiko eta naturarekiko. Haren lema: «Betetasunezko bizitza»
Identitatea, nazioaniztasuna	Ez du aipatzen	Dibertsitatearen errebindikazioa, errespetua eta babesa ematea dira bere oinarrietako batzuk
Ekonomia	Produkzioaren eta kontsumoaren joerak aldatzea, murriztea proposatzen du, ekonomia lokala aldarrikatzea eta aberastasunaren eta lanaren birbanaketa gauzatzea.	Ekonomia solidarioa eta lokala aldarrikatzen du. Aberastasunaren eta lanaren birbanaketa proposatzen du
Praktika	Aktibistek praktikatzen dute	Ekuadorreko eta Boliviako konstituzioetan barneratuta dago. Herri indigenek praktikatzen dute.

5. ONDORIOAK

Lurralde eta kultura-testuinguru oso ezberdinetan jaio badira ere, Desazkundera eta Bizitze Ona problematika berari erantzuteko sortu dira, krisi ekosozial globalari, hain zuzen. Horregatik esaten du Acostak «txanpon beraren bi aldeak» direla.

Hasieran aipatu bezala, alderdi anitzeko krisia da, ekonomikoa, soziala eta ekologikoa, eta hirurek elkarri eragiten diote; hortaz, aztertutako alternatibek, ikusi bezala, hainbat arlotan aplika daitezkeen estrategiak proposatzen dituzte. Hala ere, biek oinarritzko proposamen bezala, egungo metaketan eta hazkundean oinarritutako sistema eta garapenaren ideia aldatzea dute helburu, bizimodua ere aldatuz.

Egia da testuinguru ezberdinetan jaio izanak bakoitzaren diskurtsoan eragin handia daukala eta ezberdintasunak nabari daitezkeela. Desazkundek, Europan jaiotakoak, «*gutxiagorekin hobeto bizitzea*» bilatzen du, eta horretan oinarritzen ditu bere proposamenak, Ipar hemisferioan oro har garatutako kontsumo-eredua murrizteko beharraz ohartaraziz. Bizitze Onak, Latinoamerikan jaiotakoak, aldiz, «*betetasunezko bizitza*» bilatzen du, bere proposamenak hainbat arlotan oinarrituz; izan ere, azaldutako hiru harmoniak betetzea eskatzen du, bai indibiduoarekin, bai gizartearekin eta bai ingurumenarekin errespetuzko eta berdintasun osoko harremanak sortuz.

Demaria, Schneider, Sekulova eta Martinez-Alierren desazkundearen barneko aniztasunari buruzko gogoetei jarraituz, onuragarria izan daiteke bi alternatiben arteko berdintasunak eta ezberdintasunak aitortzea eta baliotzatzea, eztabaidak eta ideien trukeak ematea, honela bi alternatibak etengabeko hobekuntzan eta bilakaeran mantentzeko eta krisiak aitortzen duen kolapsoa saihesteko. Izan ere, alternatiben dibertsitateak etorkizunean erresilientzia handiagoa ekar dezake problematika berdinen eta berrien aurrean.

Gainera, mugimendu bakoitzak bere testuinguruan badaukate zentzua, eta ez litzateke logikoa izango haien arteko kompetentzia bilatzea, edo bakar batekin geratzea, elkarrekiko errespetua eta onarpena bultzatzea baizik. Izan ere, Belling-ek dioten moduan, bi diskurtsoak lotuta daude eta elkarri eragiten diote, eta batak bestea eusten du: Desazkundek Ipar hemisferioan proposaturiko kontsumo-murrizketak lagundu egingo du Bizitze Onak eskatzen duen estraktibismoaren murrizketan ere, eta alderantziz.

ESKER ONAK

Lan honen egileek UPV/EHU eskertu nahi dute lana finantzatzeagatik.

BIBLIOGRAFIA

- [1] MEADOWS, D. H., MEADOWS, D. L., RANDERS, J., BEHRENS, W. 1972. *Los Límites del Crecimiento: Informe al Club de Roma sobre el Predicamento de la Humanidad*. Colección Popular, Ciudad de México, México.
- [2] HERRERO, Y. 2012. *Gutxiagorekin Ongi Bizitzea. Justizia-Irizpideekin, Muga Fisikoetara Doitzea*. Manu Robles-Arangiz Institutua-ELA, Bilbo.

- [3] LARREA, C., UNCETA, K., ACOSTA, A., PETERS, S., BURCHARDT, H.-J., ANTONELLI, M., LARREA, A. M., MORENO, C., ARAUZ, A., STEFANONI, P., CORTEZ, D., VEGA, S. 2014. *Post-Crecimiento y Buen Vivir. Propuestas Globales Para La Construcción de Sociedades Equitativas y Sustentables*. Friedrich-Ebert-Stiftung (FES), Quito, Ecuador.
- [4] LEFF, E. La capitalización de la naturaleza y las estrategias fatales del crecimiento insostenible, <https://ecologiasocial.com/2004/05/la-capitalizacion-de-la-naturaleza-y-las-estrategias-fatales-del-crecimiento-insostenible/> (last time accessed: May 28, 2023).
- [5] WWF. 2020. *Living Planet Report 2020-Bending the Curve of Biodiversity Loss*. Almond, R.E.A., Grooten M. and Petersen, T., Gland, Switzerland.
- [6] STEFFEN, W. Sustainability and the New Economics. Springer International Publishing 2022, pp. 15-32.
- [7] UNITED NATIONS ENVIRONMENT PROGRAMME & INTERNATIONAL RESOURCE PANEL. 2018. *Global Resources Outlook 2019. Natural Resources for the Future We Want*. Paris, Francia.
- [8] GARCÍA-BERMEJO, T. 2020. «Reflexión teórica para la orientación psicopedagógica en los acogimientos de familia extensa». *Revista Espanola de Orientacion y Psicopedagogia*, **31**, 19-28.
- [9] UNCETA-SATRUSTEGUI, K. 2014. *Desarrollo, Postcrecimiento y Buen Vivir: Debates e Interrogantes*. Ediciones Abya-Yala, Quito, Ecuador.
- [10] GRAZÓN-ESPINOSA, A. Los límites del crecimiento: ecosocialismo o barbarie, <https://la-u.org/los-limites-del-crecimiento-ecosocialismo-o-barbarie/> (last time accessed: April 12, 2023).
- [11] BELING, A. E. 2019. «Sinergias Sur-Norte para una «transición civilizatoria» hacia la sustentabilidad: diálogos de saberes entre buen vivir, decrecimiento y desarrollo humano». *Revista Colombiana de Sociología*, **42**, 279-300.
- [12] DEMARIA, F., SCHENIDER, F., SEKULOVA, F., MARTÍNEZ-ALIER, J. 2018. «¿Qué es el decrecimiento? De un lema activista a un movimiento social». *Revista de economía crítica*, **25**, 147-169.
- [13] CATTANEO, C., DITTMER, K., DEMARIA, F. 2018. *Decrecimiento: Vocabulario Para Una Nueva Era*. Icaria Editorial, Ciudad de México, México.
- [14] LATOUCHE, S. 2008. *La Apuesta Por El Decrecimiento ¿Cómo Salir Del Imaginario Dominante?*. Icaria editorial, Madrid, España.
- [15] MARTINEZ-ALIER, J. 2008. «Decrecimiento sostenible: París, abril del 2008». *Ecología política*, **35**, 51-58.
- [16] KERSCHNER, C. 2010. «Economic de-growth vs. steady-state economy». *Journal of Cleaner Production*, **18**, 544-551.
- [17] SALAZAR, A. R. Teoría y Práctica Del Buen Vivir: Orígenes, Debates Conceptuales y Conflictos Sociales. El Caso de Ecuador, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), 2016.
- [18] GUDYNAS, E. 2011. «Buen vivir: germinando alternativas al desarrollo». *América Latina en Movimiento*, **462**, 1-20.

- [19] HUANACUNI-MAMANI, F. 2010. *Buen Vivir / Vivir Bien Filosofía, Políticas, Estrategias y Experiencias Regionales Andinas*. COORDINADORA ANDINA DE ORGANIZACIONES INDÍGENAS-CAOI, Lima, Peru.
- [20] GUDYNAS, E., ACOSTA, A. 2008. *El Buen Vivir Mas Allá Del Desarrollo*. Quito, Ecuador.
- [21] ACOSTA, A. 2015. «El Buen Vivir como alternativa al desarrollo. Algunas reflexiones económicas y no tan económicas». *Política y Sociedad*, **52**, 299-330.
- [22] CRUZ-RODRÍGUEZ, E. 2014. «Hacia una ética del vivir bien-buen vivir». *Producción + Limpia*, **9**, 11-22.
- [23] GUDYNAS, E. 2014. *Derechos de La Naturaleza Ética Biocéntrica y Políticas Ambientales*. Tinta Limón Ediciones, Lima, Peru.
- [24] VILLALBA-EGUILUZ, U., PÉREZ-DE-MENDIGUREN, J. C. 2019. «The social and solidarity economy as a way to buen vivir». *Iberoamerican Journal of Development Studies*, **8**, 106-136.
- [25] LEON, M. 2015. *Buen Vivir En El Ecuador: Del Concepto a La Medición*. INEC, Quito, Ecuador.
- [26] LARREA-MALDONADO, C. A., GREENE-LÓPEZ, N. 2017. *Buen Vivir Como Alternativa Al Desarrollo: Una Construcción Interdisciplinaria y Participativa*. Caracas, Venezuela.
- [27] HIDALGO-CAPITÁN, A. L., GARCÍA-ÁLVAREZ, S., CUBILLO-GUEVARA, A. P., MEDINA-CARRANCO, N. 2019. «Los Objetivos del Buen Vivir. Una propuesta alternativa a los Objetivos de Desarrollo Sostenible». *Iberoamerican Journal of Development Studies*, **8**, 6-57.
- [28] GUDYNAS, E. 2009. «La dimensión ecológica del buen vivir: entre el fantasma de la modernidad y el desafío biocéntrico». *OBETS*, **4**, 53.
- [29] ACOSTA, A. 2010. «El Buen Vivir en el camino del post-desarrollo Una lectura desde la Constitución de Montecristi». *Policy Paper*, **9**, 1-43.
- [30] ESCOBAR, A. 2012. «Más allá del desarrollo: postdesarrollo y transiciones hacia el pluriverso». *Revista de Antropología Social*, **21**, 23-62.
- [31] GARCÍA-ÁLVAREZ, S. Sumak Kawsay o Buen Vivir Como Alternativa Al Desarrollo En Ecuador. Aplicación y Resultados En El Gobierno de Rafael Correa (2007-2011), Universidad Complutense de Madrid, 2013.
- [32] MACAS, L. 2010. «Sumak Kawsay: La vida en plenitud». *América Latina en movimiento*, **452**, 14-16.
- [33] PAREDES, J. 2014. *Hilando Fino Desde El Feminismo Comunitario*. El Rebozo Mexico, Ciudad de México, México.